



IDAZKI PROFESIONALAK: IDAZKI PROFESIONALAK INTERNETEN-2

IRAKASGAIA: Euskararen Arauak eta Erabilerak Arlo Juridikoan

1

Patxi ORDOZGOITI PONS

AURKIBIDEA: I. Kontzeptua: 1. Definizioa: 1.1. Esanahia. **II. Zergatik pertsona eta enpresaren inguruko idazkiak?** **III. Idazkiak Interneten, baina non?:** 1. Lanhitz: 1.1. Kanpo harremanak. 1.2. Barne harremanak. 1.3. Lanhitz aztertzearen ondorioak. 2. Enpresa euskaldunduz (Bigarren liburua): 2.1. Langileekin harremanetan erabilitako agiriak 2.2. Beste enpresa edo pertsonekin harremanetan erabilitako agiriak 2.3. Administrazioarekin harremanetan erabilitako agiriak. 2.4. Enpresa euskaldunduz aztertzearen ondorioak. 4. Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako Ogasunaren web orrialdeak: **IV. Baliabide guztiak aztertzearen ondorioak - Bibliografia.**

I. Sarrera

Lan honen helburu nagusia izango da aztertzea zein izan den euskarak zuzenbidean izan duen bilakaera, normalizazio prozesuari esker. Horretarako, aztertuko ditugu Interneten aurki daitezkeen epaitegi arloko euskarazko idazki ereduak.

Nahiz eta lanaren funtsa euskarazko baliabideak aurkitzea den, gaien murgildu aurretik, komenigarria iruditzen zait aipatzea zein den euskararen izaera Euskal Herrian. Horrek eragin zuzena baitauka herritarrek Administrazioarekin euskaraz jarduteko dituzten baliabide eta aukeretan. Egia da lana gehienbat pertsona eta enpresaren inguruan eraikiko dela, baina hauek ere administrazioarekin eta justiziarekin harremanak dituzte.

Euskal Autonomia Erkidegoan hizkuntza ofiziala izango da gaztelaniarekin batera; Nafarroan, ordea, euskarak ofizialtasun partziala dauka. Hots, ofiziala izango da aurkitzen garen eremu geografikoaren arabera. Azkenik, Euskal Herriaren Iparraldeko hiru probintzietan (Zuberoa, Nafarroa Behera eta Lapurdin) euskarak ez du inolako ofizialtasunik.

Beraz, *zergatik izango ditugu aztergai zuzenbidearen jardunean herritarrok eskuragarri dituzten Interneteko idazki profesionalak?* Hain zuzen, eredu estandarren existentziak lana erraztu eta txukuntzeaz gain, segurtasun juridikoa bermatzen duelako; ez bakarrik eragile juridikoena baita edozein hirugarren interesdunena ere. Halaber, dokumentuaren eta informazioaren elkartrukea ere errazten da-

Horregatik guztiagatik, uste dut Internet idazki ereduak eskaintzeko baliabide egokia dela. Batik bat, Interneten, teknologia berriek dituzten abantailak topatzeaz gain, horiek onuragarriak direlako euskararen normalizaziorako; herritarren esku geratzen direlako, besteak beste, epaitegietara jotzeko ezinbestekoak diren agiriaren euskarazko eredu estandarrak.





II. Zergatik pertsona eta enpresaren inguruko idazkiak?

Zuzenbideko ikasle bezala hasiberritan gure lehen irudipena da epaitegi edo auzitegiei lotutakoa bakarrik dela “eduki juridikoa”, eta gure etorkizuneko lan hori epaitegien munduan bakarrik garatuko dela. Hala ere, gure formakuntzan aurrera egiten dugun egun bakoitzean ikasten dugu epaitegi-tako mundu horretatik haratago ere mundu juridikoan jarraitzen dugula. Izan ere, zuzenbide pribatu deritzon alorra gure egunerokotasunari oso lotua dago, askotan konturatu gabe.

Beraz, sarritan egunerokoa den mundu horretan murgilduz, eta bertan ere idazki profesional edo ereduak garrantzia dutela kontuan hartuz goazen aztertzea Interneten topa ditzakegun baliabide ezberdinak. Horrek esan nahi al du alde batera utziko ditugula guztiz arlo jurisdikzionalako idazkiak? Inolaz ere ez, baina azterketaren fokua ez da epaitegi-tan jarriko baizik eta pertsonan eta enpresan. Baina noski, subjektu hauek ere kasu batzuetan epaitegi-tara joateko beharra izango dute, eta kasu horietarako baliabideak ere aztertuko ditugu.

III. Idazkiak Interneten, baina non?

1. LanHitz

Baliabide guztien artean lehena hau aztertu beharko genuke. Lanhitz web orrialdeak agiri-ereduen banku paregabe bat eskaintzen du. Bertan enpresa pribatuek zein partikularrek eduki ditzaketan harreman ezberdinetarako prestatutako ereduak gure esku jartzen ditu. Honela bi talde handitan sailkatuz, honako eredu hauek eskaintzen ditu:



Ikus dezakegun modura Lanhitz web orrialdeak eredu edo idazki oso orokorrak eskaintzen ditu, edozein pertsonak bere egunerokotasunean erabilgarri izan ditzakeenak. Halaber, idazki espezifikagoak ere eskaintzen ditu, oso bideratuak lan eta enpresa mundura.

1.1. Kanpo Harremanak

Enpresa edo partikularrek beste enpresa edo partikular batzuekin dituzten harremanak dira hauek, hots, kanpora begira egiten direnak. Hemen oso esparru zabala barne hartzen da:

- Mota orotako komunikazioak (faxes, burofaxak, gonbit txartela, bilera deialdi bat, lan iragarki bat, Curriculum Vitae bat.) eta gutunak (zerbitzu edo produktu bat eskatzeko gutunak, kalitate eskasagatik erreklamazioa...)



III. Ikasleen ekarpenak



- Enpresen jarduera arruntari loturiko idazkiak (txekea, albarana, aurrekontua...)
- Lan agiri luzeak. Hala nola: kontratu edo txosten bat

Baliabide hauetatik guztietatik bat aztertzeko lan-agiri luze bat hartuko dugu, zehazki kontratu bat. Izan ere, denek modu batera edo bestera eduki juridiko izan arren, badirudi lehen begirada batean zuzenbideari gehien lotua egon daitekeena lan kontratua dela.

Hala, kontratu elebidunaren txantiloia hartuko dugu. Egia da bi hizkuntzetan daudela txantiloiak eskuragarri, baina lagungarria da dokumentu bera bi hizkuntzetan aztertzea. Azken finean, profesional batek gaztelaraz ulertzen badu eta euskaraz pixka bat badaki, lagungarri izan dakioke ele bietan ikustea euskarazko hitz edo formak barneratzeko.

KONTRATUA Agiri ereduaren bankua

gaztelaniazko bertsioa

Txantiloia elebiduna

<- itzuli

KONTRATUA / CONTRATO	
ALDERDIAK / PARTES	
Kontratatuzailearen datuak / Datos del contratista	
Enpresaren datuak / Datos de la empresa	Ordezkarieren datuak / Datos del representante
Izena / Nombre	Izen-abizenak / Nombre y apellidos
IFK / CIF	NAN / DNI
Helbidea / Dirección	Kargua / Cargo
Kontratatuaren datuak / Datos del contratado	
Enpresaren datuak / Datos de la empresa	Ordezkarieren datuak / Datos del representante
Izena / Nombre	Izen-abizenak / Nombre y apellidos
IFK / CIF	NAN / DNI
Helbidea / Dirección	Kargua / Cargo
ADIERAZTEN DUTE	MANIFIESTAN
Lehenengo. Enpresa kontratatzaileak	Primero. Que la empresa contratista [explicar [aurrekariak azaldu].
Bigarren. Enpresa kontratatuak [aurrekariak azaldu].	Segundo. Que la empresa contratada [explicar los antecedentes].
Hirugarren. Bi alderdiak kontratu hau sinatu dute, honako klausula hauren arabera:	Tercero. Que ambas partes firman este acuerdo con arreglo a las siguientes cláusulas:
KLAUSULAK	CLÁUSULAS
Lehenengoa. KONTRATUAREN XEDEA	Primera. OBJETO DEL CONTRATO
Bigarrena. EKINTZAK	Segunda. ACTUACIONES
Hirugarrena. KONTRATUA BETETZEKO EPEAK	Tercera. PERIODO DE EJECUCIÓN Y PLAZOS DE ENTREGA
Laugarrena. EGINKIZUNAK	Cuarta. COMPROMISOS Y RESPONSABILIDADES
Bosgarrena. PREZIOA ETA ORDAINITZEKO MODUA	Quinta. PRECIO Y FORMA DE PAGO
ADOSTASUNA	CONFORMIDAD
Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion Y en prueba de conformidad firman el ondorioak izan ditzan, kontratu honen bi ale presente contrato por duplicado y a un sólo egia dira eta alderdi interesdunek sinatu dituzte efecto en el lugar y fecha indicados. between adierazitako toki eta egunean.	
Toki-egunak Lugar y fecha	
Kontratatuzaileak O.E. / VºBº contratista	Kontratatuak O.E. / VºBº contratado
Oh.:	
Nota:	

1.2. Barne harremanak

Atal hau bideratuago dago enpresa edo establezimendu batek bere ohiko funtzionamendua eta barnera begira garatzen duen funtzionamenduari. Hau da, aurreko atalean ikusi dugu kanpo harreman hauek bideratzen zirela pertsona edo enpresa batek beste subjektu batekin harremanetan, hauek aldiz subjektu berak berarekin edo bere kideekin dituen harremanak bideratzeko idazkiak dira. Gehienbat barne komunikazio eta kudeaketara bideratuak dauden idazkiak topatuko ditugu bertan: komunikazio bide ezberdinak (mezu elektronikoa, faxak...), lan harremanen inprimakiak (egutegi bat, nomina bat...), lan prozesuen inprimakia (lan parte bat emateko eredu, edo istripu parte) eta lan agiri luzeak, eta azken honetan aipatzekoak hitzarmen kolektiboa eta estatutuak.

ESTATUTUAK Agiri ereduaren bankua	
Euskarazko txantiloia	
gaztelaniazko bertsioa	
<- itzuli	
ESTATUTUAK	
I. IZENDAPENA, XEDEA, EGOTITZA ETA EREHIA	
1. artikulua	[...]
2. artikulua	[...]
III. SOZIOGATAREN ADMINISTRAZIOA	
BATZAR OROKORRIA	
3. artikulua	[...]
4. artikulua	[...]
JUZENDARITZA BATZORDEA	
5. artikulua	[...]
6. artikulua	[...]
III. BARKIDEAK	
7. artikulua	[...]
8. artikulua	[...]
IV. OIBRU-BALABIDEAK	
9. artikulua	[...]
10. artikulua	[...]
V. DESEGITIA ETA LIKIDAZIOA	
11. artikulua	[...]
12. artikulua	[...]
VI. ESTATUTUAREN ERALDAPENA	
13. artikulua	[...]
14. artikulua	[...]
VII. AZKEN XEDAPENAK	
15. artikulua	[...]

Azterketarako adibide bezala estatutu bat hartuko dugu. Hurrengo Interneteko baliabidea aztertzean ere estatu bat hartuko dugu, eta horrela aukera edukiko dugu bien arteko konparaketa bat egiteko eta ikusteko zein den baliabide egokiago, osatuago edo testuinguru bakoitzean erabilgarriena.

Estatutu hauetan eduki aldetik nahiko hutsa topatzen dugu erabiltzaileak berak bete beharko baitu edukiz. Hala ere, garrantzizkoa da ikustea zein den atalen ordena eta

zein atal agertzen diren, hau da, legeak estatutu batzuetan eskatzen duen eduki minimoa zein den ikus dezakegu.





Dena den, edukiaren adibiderik ez izateak ere desabantaila bat izan daiteke, norbaitek forma hutsetik haratago doan adibide bat behar badu hau ez baitago eskuragarri Interneteko web orrialde honetan.

1.3. Lanhitz aztertzearen ondorioak

Oro har Lanhitz eguneroko erabilera baterako, bai pertsona arruntentzako bai enpresa baterako oso erabilgarriak diren idazki ereduak dauzka. Egindako ereduaren azterketan web orrialdean bertan dauden txantiloiak aztertu ditugu, baina Word formatuan jaisteko aukera ere eskaintzen du web orrialdeak, edizioari dagokionez gauzak asko erraztuz.

Balorazio azkar modura, eredu elebidunak eskaintzen ditu, oso erabilgarriak direnak bi edukia bi hizkuntzetan barneratzeko. Halaber, aipatzekoa da bere izaera orokorrak, edozein pertsona arruntek interesa eduki baitezake Interneteko baliabide honen erabileran.

ESTATUTUAK Agiri-ereduen bankua	
Definizioa	
Egitura	
Txantiloak	
Izenburua	
Izendapena, xedea, egoitza eta eremua	
Sozietatearen administrazioa	
Bazkideak	
Diru-baliabideak	
Desegitea eta likidazioa	
Estatutuaren eraldaketa	
Azken xedapenak	
Frasologia	
Estilo aholkuak	
Adibideak	

gaztelaniazko bertsioa

[Txantiloak](#)

[euskarazko txantiloia ikusi](#)

[gaztelaniazko txantiloia ikusi](#)

[euskarazko txantiloia deskargatu \(.doc, 26kb\)](#)

[gaztelaniazko txantiloia deskargatu \(.doc, 27kb\)](#)

2. Enpresa euskaldunduz (Bigarren Liburua)

Baliabide orokor hau aztertu ostean, zerbait zehatzagoa aztertuko dugu, enpresaren mundura bideratuago dagoena. Enpresa Euskaldunduz liburuaren helburua da enpresa munduan enpresa batek dituen kanpo harremanetan erabiltzen dituen agiri ezberdinak biltzea, eta hauen normalizazio prozesuan jardutea. Horretarako, hiru agiri multzo handi bereizten dira: lan motako agiriak (langileekin harremanetan), merkataritza motakoak (beste enpresekin harremanetan) eta zerga motakoak (Administrazioarekin harremanetan).

Beraz baliabide honen azterketan multzo bakoitzeko eredu bat hartu eta honen azterketa egingo dugu.

2.1. Langileen harremanetan erabilitako agiriak

Langileekin enpresa dituen harremanez hitzegitean burura datorkigun lehen gauza seguruenik kontratu bat izango da. Lan motako agiri baten adibide bezala hartuko duguna “*kontratua azkendu eta gero, elkalebian ez aritzeko ituna*” izango da.

Idazki hau ez da berez lan kontratu bat, baina normalean lan kontratuarekin batera egiten den klausula bat izan ohi da. Gainera lan kontratuaren edukia oso-oso ezberdina izan





3. Legeak 15 (Gizarte-arloko jurisdikzioan erabiltzen diren hainbat ereduren bilduma)

LEGEAK 15 LEYES

Euskal Herriko Unibertsitateak “Legeak/Leyes” liburu bildumaren 15 liburua (Horregatik legeak 15 izenburua). Liburu honetan Gizarte-arloko jurisdikzioan erabiltzen diren hainbat ereduren bilduma elebiduna eskaintzen da.

Gizarte-arloko jurisdikzioan erabiltzen diren hainbat ereduren bilduma elebiduna

Colección bilingüe de formularios utilizados en el ámbito jurisdiccional social



Azterketaren hasieran esan dugu azterketaren erdigunea pertsona eta enpresa edukiko genituela, baina hauek ere botere jurisdikzionalera jotzeko beharra edukiko dute. Atal honetan egoera hauek aztertuko ditugu, baina gure fokua galdu gabe: enpresak eta pertsonak beren arteko harremanetatik sortzen diren arazoan ondorioz epaitegiatarra jotzen erabiliko dituzten idazkiak aztertuz.

Azterketarako adibide bezala bi idazki hauek erabiliko ditugu: kaleratzeari buruzko demanda bat

8. Kaleratzeari buruzko demanda

8. Demanda sobre despido

TXANDAZ DAGOKION BIZKAIKO GIZARTE-ARLOKO EPAITEGIARI

Nik, Markel Crespok —aldindua: 15726985 zenbakitua NANA; eta zitazeko helbidea, Erandio 47258, Foruen Plaza, 3-1—, gizarte-arloko epaitegiaren aurrean agertu, eta, zuzenbidean bidezkoen den moduan, ESATEN DUT:

Idazki honen bidez KALERATZE BATI BURUZKO demanda jartzeko dudan, UTE SALMENTAren aurka —zitazeko helbidea, 420358 Abanto-Zierbena, El Campillo industrialdea, E-F-3 partidea—, honako hauek oinarritzat hartuta:

EGITATEAK

LEHENA.— Auzi-jartzaileak demandatuarentzat eta haren aginduetara lan egiten du, lehen mailako ofizialaren kategoriaz, 2002ko martxoaren 4az geroztik, urteko 16.695,41 €-ko soldata gordinia duela, aparteko pagak barne.

BIGARRENA.— 2001eko urriaren 9an, auzi-jartzaileak, FRENOS GORRIA, S.L. enpresarekin, lan edo zerbitzu jakinako aldi baterako lan-kontrato bat sinatu zuten, gehiagiko elotipenari erantzuteko. Gehiagiko elotipen hori F.M.S., S.A.k egindako TX.133 zenbakiko eskaeraren ondorioz sortu zen, eta bete beharreko lana piezak errematatzeko zen.

— 51 —

AL JUZGADO DE LO SOCIAL DE BIZKAIA QUE POR TURNO CORRESPONDA

Markel Crespo, mayor de edad con D.N.I. n.º 15.726.985, con domicilio a efectos de citación en Erandio-47258, Plaza San Agustín, 3-1.º, ante el Juzgado de lo Social comparece y como mejor en Derecho proceda, DICE:

Que por medio del presente escrito formula demanda sobre DESPIDO frente a UTE, SALMENTA a citar en Abanto y Zierbena-420358, Polígono Industrial El Campillo, Parcela E-F-3; en base a los siguientes

HECHOS

PRIMERO.— El actor viene prestando servicios por cuenta y orden de la demandada con la categoría de Oficial de 1.ª desde el 4 de marzo de 2002 y salario de 16.695,41 € anuales brutos con p.p.

SEGUNDO.— Con fecha 9 de octubre de 2001 el actor firmó con la empresa FRENOS GORRIA, S.L. un contrato de trabajo de duración determinada por fin de obra o servicio, cuyo objeto era atender el exceso de producción derivado del pedido n.º TX 133 de nuestro cliente F.M.S., S.A. debiendo realizar las labores de remachado de piezas.

— 50 —

Modu azkar batean aipatze arren, ikusten dugu nola liburuak demanda bat proposatzen digun, kasu zehatz batean tarteratuko genukeen demanda, datu zehatz eta guzti. Halaber, euskarazko eta gaztelarazko bertsioa eskaintzen ditu, biak alderatzeko aukera emanez.

3.1. Legeak 15 aztertzearen ondorioak

Eredu honi dagokionez, kontuan eduki behar da “enpresa euskaldunduz” liburuarekin bezala liburu bat dela, eta bertan egiten dena dela eredu batzuk eman forma eta eduki aldetik ikusteko (gure kasuan) kaleratzeagatik demanda bat nola formulatu. Egia da, beraz, eredu bat ematen dela, baina eredu horren helburua gehienbat ikusgarri izatea eta ideia oroko bat izatea da, gerora kasu-kasuz aldatuz eta moldatuz gure beharren arabera. Hau da, Lanhitzeekin konparatzen badugu, edukia ikus dezakegu, baina ez daukagu txantilo bat erabilgarri.

Hala ere oso erabilgarria da inoiz horrelako dokumenturik idatzi ez bada, bereziki bi hizkuntzen arteko konparaketa egin eta hitz tekniko, berezi edo erabilgarriak nola itzultzen diren jakiteko



III. Ikasleen ekarpenak



4. Gipuzkoako, Bizkaiako eta Arabako Ogasunaren web orrialdeak

Aurreko puntuetan enpresek administrazioarekin dituzten harremanak aztertuta, ikusi dugu bereziki zerga alorrean ematen den erlazio bat dela. Eredu horretan, estandarizatutako ereduak biltzen dituen beste baliabide bat hiru lurraldeetako ogasunen web orrialdeak dira, bertan zergen inguruko eredu ezberdinak topatzen baititugu. Eredu hauek enpresei zein pertsona fisikoei bideratuak daude.

Honen adibide bezala erabiliko dugun ereduak “Zergaren gerorapen edo zatikatzea” eskatzeko ereduak izango da.

Hiru ereduak ikusita argi dago eredu arrunt edo estandarrek direla, hiruak ele bietan idatziak, lehenik euskaraz eta ondoren gazteleraz. Gainera, Araban bereziki argi ikusten da euskaraz idatzitako letra belztuak erabili baitira ikusgarria izan dadin.

Gipuzkoako ereduak, aldiz, euskarazko idazketa deigarriago egiteko letra etzana erabiltzen dira. Esan beharra dago letra etzanaren erabilera horrek ez dirudiela guzti egokia, euskarazko idazketa azpimarratu baino gaztelerakoari garrantzia gehiago ematen duela dirudi.

Bizkaiko ereduak bakarrik da euskararen eta gaztelerazko idazketaren artean inolako bereizketarik egiten ez duena. Hala, badirudi bi hizkuntzei pisu bera emateko saiakeran eredu irakurtzen zailago bat egin dela, irakurtzean atentzio gehiago jartzeko eskatuz

IV. Baliabide guztiak aztertzearen ondorioak

Ikusi bezala pertsona partikular eta enpresen eguneroko jarduerarako idazkiak erabiltzeko eta gure beharretara moldatzeko baliabide asko eskaintzen ditu Internetek. Egoera anitzetan pertsona edo enpresari batek erabil ditzakeen idazkiak aztertu ditugu webgune ezberdinetan: pertsona eta enpresen artean kontratuak sinatzean, enpresen artean sinatzen dituzten kontratuak, edota bi subjektu hauek administrazioarekin eduki ditzaketen harremanak zergak ordaintzean.





Baliabide hauetatik guztietatik aipagarriena Lanhitz da nire ustez, ereduak Internet bidez eskaintzeaz gain txantiloiak jaisteko aukera ere eskaintzen du, honek eredu nahieran moldatu eta erabiltzeko bide emanez. Aztertu ditugun beste kasuetan txantiloia erakutsi erakusten da, baina eskuz kopiatu ezean ez dago aukerarik hauek eskuratzeko, esan bezala liburuak baitira. Dena den, liburu diren baliabide hauek Lanhitzek eskaintzen ez duen zerbait badute: edukia. Idazkien eredu praktikoa bat eskaintzen du, erabiltzeak berea egiterakoan jakin dezan zein den honek barne hartu behar duen edukia.

Ondorioz, jarduteko biderik egokiena eta ziurrena baliabide guztien konbinazio bat egitea litzake, alde batetik Lanhitzeko eskaintzen dituen txantiloiak erabiliz, eta hauek osatu “Enpresa euskaldunduz” edo “Legeak 15” liburuak erabiliz.

Azkenik, Foru Ogasunen web orrialdeko idazkiak topatzen ditugu, partikularrok erabil ditzakegunak zerga kontuetan. Hala ere, hauek azkar aldatzen diren idazkiak dira, eta beraz azterketa gutxiago merezi duten dokumentuak dira. Dena den, baina hor dauden idazkiak dira, eta askotan erabilgarriak izan daitezke.

Azken ondorio bezala dokumentuak ele bietan topatu ditzazkegula azpimarratzekoa da. Baliabide guztietan aukera daukagu txantiloiak euskaraz eta gaztelera aztertzeko, eta hala ez izateko kasuan hitz tekniko edo berezien itzulpena ematen da, erabiltzeak ezagutu ditzan. Bitasun honek irakurlea laguntzen du, bereziki euskara ez dakienari edo euskara erabiltzera ohitua ez dagoenari hitzak eta forma zehatzak euskaraz nahiz gaztelera erakutsiz.

Bibliografia

http://www.euskara.euskadi.eus/r59-14154/eu/contenidos/informacion/agiriereduen_bankua/eu_agiri_er/agiri_ereduen_bankua.html


<http://www.bizkaia.net/Kultura/Euskara/EnpresaEuskaldunduz/presentacion.pdf>

<https://www.ehu.eus/eu/web/euskara/legeak-leyes-bilduma>

http://www.bizkaia.eus/ogasuna/ereduak/modelos.asp?Tem_Codigo=2093&idioma=EU&dpto_biz=5&codpath_biz=5|3587|2093

http://www.alava.net/cs/Satellite?c=Page&cid=1193045475546&language=eu_ES&pagename=DiputacionAlava%2FPage%2FDPA_B_SinContenido

http://www2.gipuzkoa.net/wps/portal/lut/p/b1/hY_bboJAFEW_xQ9oZrjJ8Ihc6kC5X5R5ISMiAgLVQAG_vjQxadKkes7DyUnWys4GBCSCxItIlBgE9oC09KssaF92Lb38_GSdMjaryRtGhohRBYg1X5ADL-Ycnl2AZAHgPyPDP75vKIsgGkqEN1DkmIf_BHiRH-RDqgVgB8jTpJB9AWyZB_Csyqsy9rZrcpAsmPiLvauWDnHkWoY011AxIQjBPkzmSenk



III. Ikasleen ekarpenak



[UZWj1Dx4w62Ndq1_L_Vrj7G6Kz_y6rTjYi-3HNUZhfVa5XR6pDb1jll9L.aeRrW2imMifbvFn4ujUs6N2DptaupjWnNYnbawLjPKjMWkyGYZDx_YIc2iiUo2NUHf32WY6dedjXq2AAQjLPRbEkE-9Co2dGTRjVMWenRVdiBg3nMfhHvWRnZ3te9DHy7VgghS-OKuu70rt1td9TyWuMMegIRcdBbji6VvyD'TXTQRA!/dl4/d5/L0lJSklKSUpKZ0EhIS9JTmpBQUF4QUFFU29BQ0ltWWchIS80SmtHUUW9RdHV5RWQtVVIRL1o2XzFOMkVBQjFBMDhSSkMwSUVUSkNVSUIwTjEzL1o3XzFOMkVBQjFBMEdeTUYwSVVQTTFGSTYwQzQzLzA!/#](#)